

ERRI-KANTATA MUNGIA'N



Erri Kmrrata-Mungia

Mungiarrek gauza ederrak egiten beti jakin dabe, baiña aspaldion askoz geiago. Oraintsu ikusi al izan gendun erriaren edestia agertzen eban antzerki abestu zoragarria eta, ori gitxi ba'litz, aurtan "Mungia-Erri-kantata" eskiñi dauskue.

JAI-GIROAN

Kepa Deunaren jaiak dira Mungia'n eta aurtan, jai orrean barruan, J.M.Arregi Abesbatzaren 50n. urtea ospatzen dabe, eta aundikiro ospatu be. Alde batetik izan da eres-aldi ederra eta bestetik sariak eta oroigailuak banatzea. Eta eres-aldian zati bi, bata beste baiño obeak: Lenengoa Abest-Batzaren eresaldia eta "Mungia Erri-Kantata" bigarrena.

ABES-BATZA TA ORKESTA

Talde biak ondo alkartuta ederto abestu eta jo ebezan gai oneik: Haendel'en "Canticorun jubilo", Mozart'en "Ave Verum", Haendel'en "Largo" eta Verdi'ren "Nabuko"ren zatia.

"MUNGIA ERRI KANTATA"

Baiña ekiñaldi osoan gauzarik zoragarriena Erri Kantata izan zan.

Lenengo, Edu Iriondo'ren izki edo letrea lau zatitan: Mune-ganean, Millaka kolore, Argi-illunak eta Bide


zarrak-bide barriak. Bizkaieraz eta ondo idatzia izki au. Irudimena ugari agiri da or.

Ederra, baita, Sabin Salaberri Gasteiz'ko musikalaria ospetsuak Erri-KANTATA orreri ezarri dautson eresa, benetan zoragarria!

180 ereslari izan doguz aurrean, eta onein artean txalaparta, txistu, soiñu ta orkesta abesleriai laguntzen. Jose Mari Arregi Abes-Batzak lan aundia egin dau au gertatzen eta ondoren goragarria lortu.

Zoriona Mungiar guztiai, batez be J.M. ARREGI abesbatzari eta Anjel Entzuntza zuzendariari.

Olazar'tar Martin'ek



Sabalzaillea baseleiza Mxaagia'ko Markaida "n